

euskaraz bizi vivre en basque 4

Méthode multimédia de promotion de la langue basque

- Commande et financement
- Manua eta diru laguntza

Le Conseil Général des Pyrénées Atlantiques
Pirinio Atlantiketako Kontseilu Nagusia

- Production déléguée
- Ekoizpen ordezkaturia

L'Association Ikas
Ikas elkarteak

- Réalisation
- Illustrations
- Auteur
- Edition
- Dépôt légal :

l'Office Régional
d'Éducation Permanente
Marko Armspach
Erramun Bachoc
2003
3^o trimestre 2003

- Antolaketa
- Irudiak
- Egilea
- Edizioa
- Gordailu legala

- Participation
- Parte hartzea

- Municipalité de Hasparren,
- Hazparneko ikastola (Hasparren),
- Kanboko Xalbador Ikastegia (Cambo)
- Euskal Antzerki Taldeen Biltzarrea
- Enseignants et Elèves de basque

- Distribution
- Banaketa

Le Centre Pédagogique Basque Ikas
Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzua
Lota, 64 480 Uztaritze
Tel : 05 59 93 24 80

Euskaraz bizi 4

Vivre en basque

Salgai (en vente)

Euskaraz Bizi 1
1. bideokazeta

Euskaraz Bizi 2
2. bideokazeta

Euskaraz Bizi 3
3. bideokazeta

Euskaraz Bizi 4
4. bideokazeta

Euskaraz Bizi 5
5. bideokazeta

Euskaraz Bizi 6
6. bideokazeta

IKAS

Lota jauregia
64480 Uztaritze

Tel. 33 (0)5 59 93 24 80
Fax : 33 (0)5 59 70 32 88

e-posta : info@ikas.org
webgunea : <http://ikas.org>



Aitzin solas

Euskaraz ikas, euskaraz mintza,
euskaraz bizi, Euskaldunak baikara.

Hona bi lerrotan zein ziren IKAS elkartearen helburuak "Euskaraz Bizi" ikasbidea antolatze-rakoan. Egia erran, gero eta euskara gehiago ikasten da, ikastola, gau eskola eta eskola elebidunetan. Zorigaitzez gero eta euskara gutiago erabiltzen da nola familietan hala jendarte harremanetan. Zergatik ote ? Gerta daiteke ikasi duten hizkuntza ez dela baliagarri ikastetxetik kanpo. Alta hizkuntza zertarako da, komunikatzeko ez bada ?

“Euskaraz bizi” komunikazio ikasbide bat da. Alde batetik ikusten da nola lotzen diren euskaldunen arteko harremanak gune ezberdinetan, etxean, eskolan, saltegietan, jendartean ; bestalde hizkuntza funtzioak eta egiturak lantzen dira hamar mintzagai nagusiren inguruan :

- nor bere nortasuna eta ingurumena ;
- nor bere nahiak eta beste buruzko eskaera-eskaintzak ;
- nor bere ekintzak eta besten gertakariak ;
- lekutasuna eta denbora ;
- iritzien arrazoibidea eta hunkipenen adierazpena.

Liburu bakoitzean funtzio berak lantzen ditugu baina gero eta hiztegi aberatsagoarekin, gero eta gramatika egitura zehatzagoekin. Bosgarren urrats honetan 2000 hitzetara helduko gara eta aditz trinkoak ikasiko bereziki agintaldian. Esaldiaren joskera ikertuko dugu adierazpen ezberdinetan : galdeak, baiezkotza edo ezezko erantzunak, eragina, zergatiak, denbora.

Bosgarren liburu hau eginkizun luze batean kokatzen da, IKAS elkarteak bere gain hartu zuenildoari jarraikiz. Diru laguntza Kontseilu Nagusitik etorri zen. Antzerkilariek eta musikariek entzun-ikusgaiak apaindu zituzten, OREPeke eta gero Comediako teknikariek. Orain ikas-tresna hau IKAS pedagogia zerbitzuaren eskuetan dago. Lankidetzazabal honetan batasun eta erakunde anitzek parte hartu dute. Badugu denen beharra Euskal Herriaren euskalduntzeko.

Zehaztasun batzuek frantsesez emanen ditugu, erdaldunentzat egin baita liburu hau. Euskaraz bizi daitezkeen lehenbailehen.

Mode d'emploi

Euskaraz bizi

Le programme "Euskaraz Bizi" parcourt sa cinquième étape, de la leçon 41 à 50. Par le biais de sketches, l'élève aura l'occasion d'assister puis de participer à une vingtaine de dialogues qui sont autant de modèles de conversation.

Apprendre à communiquer

Ce quatrième manuel utilise les dix fonctions linguistiques qui ont été retenues comme base de la programmation.

- 31. L'identification: Herritarrak. *Les compatriotes.*
- 32. Les besoins: Jatetxean. *Au restaurant.*
- 33. L'action: oilasko saltsa. *Poulet basque.*
- 34. La localisation: Gauzak non? *Où sont les choses?*
- 35. Les opinions: Herriko Etxean. *A l'Hôtel de Ville.*
- 36. L'environnement: Etxea. *La maison.*
- 37. La demande: Jantzi denda. *Boutique d'habillement.*
- 38. Les événements: Gutunak. *Les lettres.*
- 39. Le temps: Zer eguna! *Quelle journée!*
- 40. Les émotions: Musean. *Au mus.*

Chaque unité d'apprentissage présente plusieurs événements de communication dans le cadre de la famille, de l'école, du travail, des loisirs, de la vie sociale. La répétition des structures grammaticales appropriées permet de fixer les automatismes linguistiques qui serviront à la conversation courante.

Utilisation du manuel

Que se soit en classe, en famille ou dans un groupe informel, la leçon de basque passe par trois étapes:

- la présentation de la situation,
- l'acquisition des automatismes,
- l'utilisation des éléments appris.

Avant d'entreprendre un exercice il vaut mieux étudier le vocabulaire correspondant. Les mots nouveaux apparaissent dans le lexique bilingue situé à la fin de chaque unité.

- 1- La présentation de la situation se fait en visionnant chaque sketch avec la cassette VHS. On peut également utiliser la lecture expressive, le mime. L'élève doit s'imprégner de l'intonation et de la gestualité, car l'expression juste est essentielle pour comprendre le message et le transmettre aux autres.

2. L'acquisition des automatismes linguistiques supposent un entraînement régulier pour que les règles de grammaire deviennent des réflexes de langage. Le paragraphe "Errepika" propose des exercices progressifs qu'on peut utiliser sous la stimulation d'un enseignant, d'un camarade bascophone. Ou même tout seul en s'aidant du livret de traduction. Une cassette qui enregistrerait la répétition serait utile pour vérifier l'exactitude des automatismes.
3. La conversation est l'objectif de chaque leçon. La façon la plus facile d'utiliser les éléments acquis consiste à mimer le sketch étudié en soignant l'expression. L'un des interlocuteurs devrait être bascophone d'origine. Le paragraphe "Eleketa" suggère plusieurs schémas de conversation correspondant à des situations nouvelles. C'est le plus court chemin pour passer de la répétition à la conversation libre. Une difficulté demeure dans la transition entre le basque normalisé (euskara batua) appris en classe et le basque dialectal (euskalkia) utilisé localement.

Des indications pédagogiques plus précises figurent au paragraphe "Comment enseigner la basque", à la page 51.


Le projet global

"*Euskaraz bizi*" est un programme multimédia qui se propose d'appliquer à l'enseignement de la langue basque la méthode communicative préconisée par le Conseil de l'Europe. Voir la documentation concernant le "Niveau Seuil". L'apprentissage tourne autour des fonctions linguistiques et utilise tous les moyens de communication : la vidéo, le livre, la cassette audio, la radio. Elèves et enseignants peuvent se procurer les outils didactiques au Centre pédagogique basque Ikas, Château Lota, 64 480 Ustaritz.

Dès le départ en 1986 l'Association Ikas a été le maître d'œuvre du programme en concertation avec le Conseil Général des Pyrénées Atlantiques qui en a financé la production. La réalisation audio-visuelle a été confiée d'abord à l'Office régional de l'éducation permanente (OREP), puis à la coopérative Comédia. La concrétisation de ce projet a suscité la mobilisation de nombreux intervenants : municipalités, écoles, institutions, enseignants, élèves, acteurs, chanteurs, musiciens, dessinateurs, techniciens de l'audio-visuel. Le programme "Euskaraz Bizi" se place dans un projet plus vaste, la rebasquisation qui redonnera son vrai visage à l'Euskal Herri.

Euskararik gabe ez da Euskal Herririk.

Erramun Bachoc




31. Herritarrak

310. Aurkezpena - Lapurtarrak

- Maite – Ikasgelan gara. Ni irakasle, zu ikasle.
Ikus dezagun Lapurdiko mapa.
- Pantxo – Lapurdiko hiri handienak
Baiona, Angelu, eta Biarritze dira.
- Maite – Baionan Baionesak bizi dira.
Biarritzen Biarritzarrak. Eta Angelun?
- Pantxo – Angelun aingeruak. Ez Angeluarrak.
- Maite – Ederki!
Kostaldean beste hiru hiri handi badira:
Bokale, Donibane Lohizune eta Hendaia.
- Pantxo – Bokalen Bokalesak, Hendaian Hendaiarrak.
Eta Donibanen?
Donibandarrak ala Lohizundarrak
- Maite – Bat ala beste.
Ez ahantz barneko hiru hiri politak:
Uztaritze, Hazparne eta Ezpeleta.
- Pantxo – Bestenaz ez digute barkatuko.
Uztariztarrek, Hazpandarrek eta Ezpeletarrek.
- Maite – Iso! Egiazko erakaslea heldu zaigu.
- Pantxo – Egun on, andereño!

311. Eskolan - Lapurtarrak

- Irakaslea – Iparraldean baditugu hiru herrialde: Lapurdi,
Baxenabarre eta Xuberoa.
Nola deitzen dira bizilagunak?
- Arantxa – Nere aita Lapuritarra da,
Milafrangan sortu bait zen.
- Intza – Ni Baxenabartarra naiz.
Nere laguna Xuberotarra da,
Barkoxen sortua bait da. (baita)
- Irakaslea – Lapurdin ibiliko gara.
Baiona da Lapurdiko hiri nagusia.
Nor bizi da Baionan?
- Xabi – Baionesak. Guziak gormantak.
- Irakaslea – Beste hiri handiak Angelu eta Biarritze dira.
Nor bizi da Angelun?
- Mirentxu – Angeluarrak eta ez Ingelesak.



- Irakaslea – Eta Biarritzen ?
 Arantxa – Biarritzarrak eta turistak.
 Irakaslea – Lapurdin beste sei kantonamendu badira.
 Ezpeleta, Hazparne, Hendaia;
 Intza – Donibane Lohizune, Hiriburu eta Uztaritze.
 Irakaslea – Nor daude hiri horietan ?
 Xabi – Ezpeletarrak eta biper gorriak.
 Mirentxu – Hazpandarrak, zapeta egileak.
 Irakaslea – Bidasoa bazterrean Hendaia dago.
 Arantxa – Hendaiarrak itsas ohoinak ziren.
 Itsas ontziak bahitzen bait zituzten.
 Irakaslea – Nork ikusi du Donibane Lohizuneko portua ?
 Intza – Lohizundarrak arrantzaleak dira.
 Irakaslea – “Arin eta uros Hiriburuko”
 Xabi – Hiriburutarrak dantzari eta lasterkari ziren.
 Irakaslea – Lehen Uztaritze Lapurdiko hiri nagusia zen.
 Mirentxu – Uztariztarrak eta kanboarrak Errobin igerikan.
 Arantxa – Non ez ditut ikusten.
 Mirentxu – Itoak bait dira. (baitira)

312. Errepika - **Joan, joaten nintzen**

Lehen nora joaten, joan, joanen hintzen ?

- Iragan udan hondartzara joan hintzen ?
- Bai, egunero joaten nintzen.
- Haatik euriarekin, ez nintzen joanen.

Lehen zer hartzen, hartu, hartuko zinuen ?

- Xapela hartu zenuten ?
- Eguzkiarekin xapela hartzen genuen.
- Bestenaz ez zuten xapelik hartuko.

313. Eleketa - **Non sortu nintzen.**

Maparen aitzinean bakoitzak aipatzen du bere herria.

- Non sortu zinen ? - Jatsun sortu nintzen.
- Non sortu zen zure aita ? - Aita Irisarrin sortu zen.
- Non bizi zara ? - Haltsun bizi naiz.
- Beraz haltsuarra zara.



314. Aurkezpena - **Baxenabartarrak eta xuberotarrak**

- Maite – Geografi ikastaldiak jarraitzen du.
Baxenabarren gabiltza, Baxenabartarrekin.
- Pantxo – Bidaxune eta Bidaxundarrak;
Bastida eta Bastidarrak.
- Maite – Iholdi eta Iholdiarrak;
Donapaleu eta Amikuztarrak.
- Pantxo – Baigorri eta Baigorriarrak;
Donibane Garazi eta Garaztarrak.
- Maite – Ikus dezagun Xuberoa.
Xuberon bi hiri nagusi dira:
Maule eta Atharratze.
- Pantxo – Maulen Mauletarrak;
Atharratzen Atharraztarrak
- Maite – Aitzina Xuberotarrak ala jauna!
- Pantxo – Gora Baxenabartarrak!
Eta aupa Lapurtarrak!



315. Eskolan - **Baxenabatarrak eta xuberotarrak**

- Irakaslea – Baxenabarren badira sei kantonamendu:
Bidaxune, Iholdi, Bastida;
- Itxaro – Baigorri, Donibane Garazi eta Donapaleu.
- Irakaslea – Donibane da Garaziko hiriburua
Donibanen badira oihal saltegiak.
Axuri merkatua ere egiten dute.
- Arantxa – Garaztarrek artilea lantzen zuten.
Lantzen zuten artilea ehuten zuten .
- Laurentx – Axurkia eta ardi gasna jaten dugu.
- Irakaslea – Nor bizi da Bidaxunen?
- Arantxa – Bidaxundarrak. Gaskoinak dira.
Beren jauregi zaharra erakusten dut.
- Irakaslea – Nor bizi da Iholdin?
- Laurentx – Iholdiarrak. Hoxan gaindi onddoka dabiltza.
- Irakaslea – Nor bizi da Bastidan eta auzo herrian?
- Xabi – Bastidarrak eta Isturiztarrak.
- Itxaro – Lehen Euskaldunak
Izturitzeko leizean bizi ziren.
- Irakaslea – Nor bizi da Baigorri eta auzoan?
- Arantxa – Baigorriarrak eta Irulegiko mahastizainak.
- Irakaslea – Donapaleu Amikuzen da.
- Laurentx – Amikuztarrak arto biltzaileak dira.




(Gizonak) ile gorriak ditu; gizona arrotza da.

Ile gorriak dituen gizona arrotza da.

(Neskak) zango luzeak ditu; neskari mendia gustatzen zaio.

Zango luzeak dituen neskari mendia gustatzen zaio.



- Irakaslea – Xuberon badira bi kantonamendu :
Maule, Xuberoke hiri nagusia
eta Atharratze mendi aldean.
- Ximun – Mauletarrek jauregia erakusten dute.
Matalasen presondegia zen.
- Irakaslea – Atharraztarrak artzainak dira.
Santa Garaztarrak eta Larraindarrak ere bai.
- Itxaro – Barkoxen pastorala ikusi nuen.
- Irakaslea – Zein?
- Itxaro – Ikusi nuen pastorala Zumalakarregi zen.
- Arantxa – Gudariek tiroka ari ziren,
eta jauts ahala euri egin zuen.



316. Errepika - **Pattin zena**

1. (Gizona) etorri zen. 2. Gizona Xuberotarra zen.
3. Etorri zen gizona Xuberotarra zen.
1. (Gasna) erosi nuen. 2. Gasna ustela zen.
3. Erosi nuen gasna ustela zen.

317. Kantua - **Bereterretxen kantoria**

Haltzak ez du bihotzik, ez gaztanberak hezurrik,
Enian uste erraiten ziela aitoren semek gezurrik.

Ezpeldoiko alaba, Margarita deitzen da.
Bereterretxen odoletik ahurka biltzen ari da.

318. Hiztegia - **Herritarrak**

-310- -311-


Lapurdi: *Labourd*. Lapurtar: *Labourdin*. Aingeru: *ange*. Iso!: *silence!* Egiazko: *vrai*. Xuberoa: *Soule*. Xuberotar: *Souletin*. Bizilagun: *habitant*. Baxenabartar: *Bas-Navarrais*. Nagusi: *principal*. Ingeles: *Anglais*. Turista: *touriste*. Kantonamendu: *canton*. Zapeta: *soulier*. Oihan: *forêt*. Ontzi: *navire*. Bahitu: *saisir*. Portu: *Port*. Lasterkari: *coureur*. Errobi: *Nive*. Igerika: *nage*. Ito: *noyé*.

-314- -315-

Amikuztar: *habitant du Pays de Mixe*. Garaztar: *habitant du Pays de Cize*.
Baxenabartar: *Bas-Navarrais*. Ala jauna: *sacrebleu*. Artile: *laine*.
Gaskoin: *Gascon*. Mahastizain: *vigneron*. Biltzaile: *ramasseur*.
Pastorala: *pastorale*. Gudari: *soldat*. Tiro: *coup de fusil*. Jautsi: *descendre*.

-316- -317-


Ustel: *pourri*. Haltza: *aulne*. Gaztabera: *yaourt au lait de brebis*. Aitoren seme: *noble*. Ahur: *creux de la main*. Ahurka: *à pleine main*.



32. Jatetxean

320. Aurkezpena - Zer janen dugu?

- Maite – Eguerdi da. Mahaia prest da.
 Pantxo – Dena prest da:
 azitak, edalontziak,
 koilerak, kanibetak, furtxetak.
 Maite – Ez da garbi garbia.
 Pantxo – Zer inporta, berdin zikinduko dituzte.
 Maite – Jatekoak prest dira.
 Pantxo – Begira haragiak:
 xerriak, aratzekia, axurkia.
 Maite – Arrainak ere bai:
 amuarraina, legatza, makailua.
 Pantxo – Bazkaria prest da.
 Non dira bazkaltiarak?
 Maite – So egizu!
 Maddi eta Mixel heldu dira bazkaltzera.
 Zartain zaharra bezain gormantak dira!



321. Lagunartean - Zer janen dugu?

- Maddi – Gose naiz. Goazen jatera.
 Mixel – Bai, goazen bazkaltzera.
 Ostalerra – Egun on, jaun-andereak.
 Maddi – Ikusiko dugu jatekoan karta.
 Mixel – Zer nahi duzu, arraina ala haragia?
 Maddi – Arraina maite dut, baina haragia maiteago.
 Mixel – Haragietan badugu hautua:
 zikiroa, axurkia, oilaskoa...
 Maddi – Ez zaizkit biziki gustatzen.
 Mixel – Idikia, aratzekia, xerriak.
 Maddi – Idikia gustatzen zait.
 Mixel – Niri ere bai.
 Ostaler – Egun baditugu arrain onak:
 Amuarraina, legatza eta makailua.
 Maddi – Mixeli arraina ez zaio gustatzen.
 Mixel – Hobeki erranez, haragia gustatzen zaigu.
 Ostaler – Hautatu duzue?
 Maddi – Hasteko eltzekaria hartuko dut.
 Gero saheskia ilarrekin.



- Ostaler – Ongi da. Eta zuk jauna?
Mixel – Lehenik entsalada nahasia.
 Bigarrenik idiki xerra lursagar fritekin.
Ostaler – Xerra ongi errea ala guti?
Mixel – Heinean gustatzen zait.
Ostaler – Berehala ekarriko ditut.
Mixel – Mahaian badugu aitzina
Maddi – Lotsagabea !

322. Nor nori - **Zer nori gerta ere** (168, 192)

NORI	ZER	(EZ)	ADITZA	(bai)
Niri	haragia		gustatzen	zait,
baina	arrainak	ez zaizkit	gustatzen.	
Hiri	bazkaria	ez zaik	gustatzen,	mutikoa,
baina	bazkaltiarak		gustatzen	zaizkik
Hiri	xerrikia		gustatzen	zain, neskatto,
baina	xerriak	ez zaizkin	gustatzen.	
Maddiri	axurkia		erre	zaio,
eta	madariak		usteldu	zaizkio.
Guri	etortzea	ez zaigu	ahantzi,	
eta	beharrezkoa		iruditu	zaigu.
Zuri	betaurrekoak		erori	zaizkitzu,
eta	berina bat		hautsi	zaitzu.
Zuei	gozokia		bukatu	zaitzue
gero	lagunak		etorri	zaizkitzue.
Neskei	mutikoak		hurbildu	zaizkie,
eta	kalaka	ez zaie	faltatu.	

323. Eleketa - **Nori zer gustatzen?**

Bakoitzak erran dezala zer gustatzen zaion jateko edo edateko.

- Galde - Zer gustatzen zaizu, axurkia ala arrainak?
Erantzun - Axurkia gustatzen zait. Arrainak ez.
Galde - Eta zer maite duzu edateko?
Erantzun - Liranjá jusa maite dut. Arnoa ez.
Galde - Zuretzat zein dira hiru jateko hoberenak?
Erantzun - Arroltze eta xingar, lursagarra, gaztainak.

324. Aurkezpena - Bazkaltzen

- Maite – Maddi eta Mixel bazkaltzen ari dira.
Zer edaten dute?
- Pantxo – Hona hemen edatekoak:
arno xuria, arno gorria, garagardoa.
- Maite – Liranjá jusa eta ura.
Edari bizia ere kafearen ondotik.
- Pantxo – Lehenik hurrupáño bat hartuko dugu
Ez dea hala.
- Maite – Zergatik ez?
- Zure osagarriari Pantxo jauna.
- Pantxo – On dagizula, andere maitea.
- Maite – Maite anderea erran nahi duzu?
- Pantxo – On dagizuela, Mixel eta Maddi.

**325. Lagun artean - Bazkaltzen**

- Ostaler – Zer edanen duzue?
Arno xuria, gorria ala sagarnoa?
- Mixel – Niretzat liranjá jusa.
- Maddi – Fruitu jusak ez zaizkit gustatzen.
- Ostaler – Ura nahiago duzu, hain segur?
- Maddi – Ez, arno gorri xorta xorta bat.
- Maddi – Entsalada ez da eskuz jaten
baina sardexkaz, itsusia.
- Mixel – Salda ez da kanibetaz jaten,
bainan zalizkaz, pollita.
- Ostaler – Horra jakia.
Idiki xerra anderearentzat
eta saheskia jaunarentzat.
- Maddi – Mixelek idikia nahiago zuen,
eta nik saheskia nahiago nuen.
- Ostaler – Barkatu, ahantzi zait. Hori zuen.
- Mixel – Zure osagarriari.
- Maddi – On dagizula.
- Mixel – Arno azkarrak gustatzen zaizkitzu? Maddi
Hau segurik, zinez goxoa zait.
- Ostaler – Zer deserta hartuko duzue?
Gasna, gozoki zati bat, izozkia?
- Maddi – Nik sagar bat nahiago dut.
- Mixel – Nik berriz, kafe bat, besterik ez.
- Maddi – Kondurik ere ez ote?



- Ostaler – Aski jan duzue?
 Mixel – Aski eta ederki.
 Gauza guziak gustatu zaizkigu.
 Maddi – Berriz ere etorriko gara.

326. Lagun artean - **Gertatu eta gertatuko**

Erran zer gertatu zaion eta zer gertatuko.

- Galde – Gertatu zaitzuna gertatuko zatizu?
 Erantzun – Matematikan zero gertatu zait.
 Ez zait berriz gertatuko.
 Galde – Eta dentistara joatea?
 Erantzun – Hortzen artatzea behartuko zait.
 Galde – Zer hobetu, gaizkitu zaitzu?...



327. Kantua - **Godalet dantza** (*Kantuz 152*)

Godalet dantza, godalet dantza.
 Besta hunen akabatze kotz, emanen dugu piko,
 Godalet hunen ingurian, dantza famatu ederrena.

Godalet dantza, Godalet dantza.
 Segi gaiten usai onari, kasu godalet horri:
 Erortzen balitz zango pean, itsusi laite guzientzat.

328. Hiztegia - **Jatetxean**

-320- -321-

Inporta: *importer*. Zikindu: *salir*. Xerriki: *viande de porc*. Aratxeki: *du veau*. Axurki: *de l'agneau*.
 Amuarrain: *truite*. Legatza: *colin*. Makailu: *morue*. Bazkaltiar: *convive à déjeuner*. Zartain: *poêle*.
 Karta: *carte*. Zikiro: *mouton*. Oilasko: *poulet*. Hobeki: *mieux*. Saheski: *côtelette*.

-322- -323-

Erre: *brûler*. Madari: *poire*. Usteldu: *pourrir*. Betaurreko: *lunette*. Berina: *verre*. Bukatu: *finir*. Hur-
 bildu: *s'approcher*. Neskatto: *fillette*. Liranga: *orange*. Gaztain: *châtaigne*.

-324- -325-

Garagardo: *bière*. Edari bizia: *eau de vie*. Fruitu: *fruit*. Jusa: *jus*. Itsusi: *vilain*. Jakin: *met*. Xerra: *tranche*.

-326- -327-

Zero: *zero*. Dentista: *dentiste*. Behartu: *avoir besoin*. Hobetu: *améliorer*. Gaizkitu: *détériorer*. Hain
 segur: *sûrement*. Godalet: *verre*. Akabatu: *finir*. Piko: *pas de danse*. Famatu: *fameux*. Usai: *coutume*.
 Kasu: *attention*. Zango: *pied*.

33. Oilasko saltsa

330. Aurkezpena - Sukaldaritza

- Maite – Euskal Telebistan
emankizun bat ikusiko duzue.
- Pantxo – Sukaldaritza.
- Maite – Egun “oilasko saltsa”
- Pantxo – Ekai guziak hemen daude:
xingarra, tipula, baratxuria.
- Pantxo – Kanit marraza.
- Maite – Kasu, gizona!
- Pantxo – Oilaskoa falta da.
- Maite – Sukaldariak ekarriko du.
- Pantxo – Sukaldaria badator.
- Maite – Egun on, Mutturfin!



331. Gizartean - Sukaldaritza

- Sukaldaria – Zer oilasko saltsa ona egingen dugun!
Lagunduko nauzu?
- Laguna – Bai, gogotik lagunduko zaitut.
- Sukaldaria – Ikus zein ekai behar ditugun:
oilasko eder bat,
bi tipula, baratxuri buru bat.
- Laguna – Barkatu. Ez zaitut entzuten
- Sukaldaria – Hiru baratxuri xixter, bi biper gorri,
hiru biper berde, gatza, biper beltza,
bost tomate, eta xingar xafla bat.
- Laguna – Dena hor da.
- Sukaldaria – Zuk biperrak xehatuko dituzu.
– Ulertzen nauzu?
- Laguna – Bai, bai. Ulertzen zaitut.
- Sukaldaria – Tipulak ere xurituko dituzu.
- Laguna – Bainan nigar egingen dut.
- Sukaldaria – Nik tomateei azala kentzen diet
eta moztuko ditut.
- Laguna – Tomateek ez dute nigar eginarazten.
- Sukaldaria – Ez dugu deus ahanzten?
- Laguna – Arno xuria ahantzi duzu!



- Sukaldaria – Zure osagarriari. On dagitala!
 Laguna – Oilaskoarentzat zen arnoa.
 Sukaldaria – Zer? Oilasko hori ez da egarri!

332. Nor nork? - Nork zer ikusi du?

Nor 3. pertsonan delarik, badakigu nola NORK-aditza joka:

Nik gizona ikusi dut, hik ikusi duk, horrek ikusi du...

Nor 1. edo 2. pertsonan delarik aditz laguntzailea aldatzen da.

NORK	NOR	(EZ)	ADITZA	(BAI)
Nik	hi		ikusi	haut;
hik	ni	ez nauk	ikusi	mutil;
hik	ni	ez naun	ikusi	neska.
Nik	zu		maite	zaitut;
zuk	ni		maite	nauzu.
Nik	zuek		ezagutzen	zaituztet
zuek	ni	ez nauzue	ezagutzen.	
Harek	ni	ez nau	entzun.	
Harek	gu		bilatu	gaitu.
Harek	zu		ikusi	zaitu.
Harek	zuek		elkartu	zaituzte.
Haiek	ni	ez naute	ulertu.	
Haiek	gu	ez gaituzte	eraman.	
Haiek	zu		agurtu	zaituzte.
Haiek	zuek		bildu	zaituztete.
Guk	zu		aurkitu	zaitugu;
zuk	gu	ez gaituzu	harrapatu.	
Guk	zuek		utzi	zaituztegu;
zuek	gu	ez gaituzue	utzi.	



333. Eleketa - Euskal opila

Ikaslek hitzegiten dute euskal opila eginez edo erranez bakoitzak nola egiten duen.

- Zer behar da euskal opilaren egiteko?
- 350 grama irin, 180 grama asukre, 200 grama gurin;
2 arroltze, edarri bizi xorta bat;
gerezi beltzak edo jelera edo gozoki krema.
- Nola egiten da euskal opila?
- Irina, arraultzeak, asukrea, gurin guritua nahas,
ore gozo bat ardietsi arte.
Nola erretzen da opila? ...



334. Aurkezpena - Oilaskoa prestatzen

- Maite – Euskal telebistan
emankizun bat ikusten duzue.
- Pantxo – “Sukaldaritza”, bigarren zatia.
- Maite – “Egun, oilasko saltsa”.
Entzuten nauzu?
- Pantxo – Entzuten zaitut: “Ahate saltsa”.
Ez! “Oilasko saltsa”.
- Maite – Ez hunki marraza!
Sukaldariak ikusiko zaitu.
- Pantxo – “Sukaldaritza: oilasko saltsa”.

**335. Gizartean - Oilaskoa prestatzen**

- Sukaldaria – Nik oilasko zatituko dut.
- Laguna – Zein gizona den.
- Sukaldaria – Bai segur, lodia da.
Oilaskoa zatitzen dut.
Ixter bat, bi ixter.
Hegal bat, bi hegal.
Bi ixterrak eta bi hegalak
kaxolan sar itzazu. Aizu!
- Laguna – Bai, bai, entzuten zaitut.
Bi hegalak, bi ixterrak.
Papoa ere ezartzen dut.
- Sukaldaria – Xingarra moztuko duzu lauki ttipi ttipitan.
Ikusten nauzu? Atx!
- Laguna – Kasu erriari! Utziko nauzu lanaren egitera?
- Sukaldaria, liburua irakurriz:
– Ixur oligo xorta bateta su eztian bero.
- Laguna – Zer usain ona!
- Sukaldaria – Ez da oraino hoberenean.
Ezar biper zatiak eta tipula.
Busti arno zuriz.
Eman xingarra eta baratxuri lehertua.
- Laguna – Horra tomateak.
Behar duena badu. Gose naiz.
- Sukaldaria – Utz eraikitzen oren osoa.
- Laguna – Luze da!
- Sukaldaria – Ikusi duzu zer sukaldari ona naizen?
- Laguna – Ikusiko dut zer jale ederra zaren.



336. Nor nork ? - Aditz joko osoa

	Ni	Hi	Hura	Gu	Zu	Zuek	Haiek
Nik		haut	dut		zaitut	zaituztet	ditut
Hik	nauk		duk	gaituk			dituk
Hik	naun		dun	gaitun			ditun
HARK	nau	hau	du	gaitu	zaitu	zaituzte	ditu
GUK		haugu	dugu		zaitugu	zaituztegu	ditugu
ZUK	nauzu		duzu	gaituzu			dituzu
ZUEK	nauzue		duzue	gaituzue			dituzue
HAIEK	naute	haute	dute	gaituzte	zaituzte	zaituztete	dituzte

Ikasleek NOR NORK osoa landuko dute adibide berean ahal diren galde guzietan erantzunez. Ikus 332. eta Jo-ta-ke, 3, 220. orr.

“Nik laguna agurtu dut” : Eta zuk? Maialenek? Gu? Zuek?

“Lagunak ez nau agurtu” : Eta zu? Maialen? Gu? Zuek?

337. Kantua - Kinkiri kunkuru (Kantuz 134)

Erran dut erranen et'errango, ez naiz ixilik egongo:

1. Plaza huntako dama gazteak, ez dira monja sartuko.

Ala kinkiri kunkuru kanta, gu bezalakoak dira hola!

2. Plaza huntako gizon gazteak, ez dira fraile sartuko.

3. Plaza huntako gazte guziak, ezkontzan dira sartuko.

338. Hiztegia 32

-330-331- Saltsa: *sauce*. Sukaldaritza: *art culinaire*. Kanit, marraza: *couteau de boucher*. Muttur: *museau*. Xixter: *gousse*. Xafla: *tranche*. Xehatu: *trancher*.

-332-333- Pertsona: *personne*. Jokatu: *jouer, décliner*. Aditz: *verbe*. Laguntzaile: *aide, auxiliaire*. Maitatu: *aimer*. Elkartu: *réunir*. Agurtu: *saluer*. Irin: *farine*. Grama: *gramme*. Edari: *liqueur*. Gerezi: *cerise*. Jelera: *confiture*. Krema: *crème*. Guritu: *ramollir*.

-334-335- Hunki: *toucher*. Gizen: *gras*. Kaxola: *casserole*. Papo: *poitrine*. Lauki: *carré*. Ezti: *miel, doux*. Usain: *odeur*. Hobe: *meilleur*. Hoberen: *le meilleur*. Lehertu: *écraser*. Erakitu: *cuire, bouillir*. Oso: *entier*.

-336-337- Xerkatu: *chercher*. Eskertu: *remercier*. Monja: *religieuse*. Fraile: *religieux*. Ezkondu: *(se marier)*.




34. Gauzak non?

340. Aurkezpena - **Moltsa galdu**

- Maite – Peio Maddiren beha dago, zinemara joateko.
- Pantxo – Zorigaitzez, Peiok moltsa galdu du. So egizu mahai pean denetz.
- Maite – Egia! Mahai gainean ezarriko diogu. Errexki aurkituko du, giza gaizoak!
- Pantxo – Ez! Gordeko diogu, lore ontzi gibelean. Ez! Sahetsean.
- Maite – Moltsa ageri da. Liburuen artean kokatuko diogu.
- Pantxo – Begien bistan da! ikusiko du. Palto sakelan gordeko diogu.
- Maite – Iso! Maddi badator Peioren gana.

341. Lagunartean - **Moltsa galdu**

- Peio – Maddirengana noa, zinemara gomitatzeko. Non da nere moltsa?
- Maddi – Peio barnean zara? Bagoaz zinemara?
- Peio – Sar zaitetz. Berehala prest naiz. Nondik heldu zara?
- Maddi – Osabarenganik heldu naiz. Goraintzia igortzen dizu.
- Peio – Milesker. Nere agurra emanen diozu. Zinemara eraman gogo zaitut. Bainan moltsa galdu dut.
- Maddi – Ez ote da mahai gainean, puskila guzien artean?
- Peio – Ez da mahai gainean, ez eta ere tiranta barnean.
- Maddi – Ikus ezazu hor, ez denetz besalki azpian?
- Peio – Ez, ez da besalki pean. Ez, da besalki gainean. Ez, da besalki aitzinean. Ez, da besalki gibelean.



- Maddi – Zaude, nik aurkituko dizut liburu horien artean.
- Peio – Ez, ez da liburuen artean. Moltsa sekulakotz galdua da. Xahu naiz! Xahu, xahu !
- Maddi – “Deus ez da galtzen. Deus ez da sortzen. Dena da aldatzen”.
- Peio – Ni aldatua naiz jantzi ederrekin. Bainan moltsarik gabe, zinemarik ez.


342. Nor nori nork? - Nik zuri, zuk niri.

Jadanik badakizu:

178. Nik haurrai opila erosi diot.

185. Zuk anaei jostailua hautsi diezu.

272. Aitak haurrei udareak ekarri dizkie.



NORK	NORI	EZ	ZER bakar	EGIN	(bai)
Nik	hiri		zinema	eskaini	dinat, neska ;
hik	niri		eskerrona	adierazi	didan.
Nik	hiri		dirua	uzten	deat, mutil ;
hik	niri	ez didak	dirua	itzuliko.	
Nik	zuri		moltsa	gorde	dizut ;
Zuk	niri	ez didazu	moltsa	agertzen.	
Nik	zuei		autoa	atera	dizuet ;
zuek	niri		ez didazue	autoa	sartu.
NORK	NORI	EZ	ZER anitz	EGIN	(bai)
Nik	hiri	zinema	eskaini		dinat, neska ;
hik	niri	ez dizkidan	eskerrak		bihurtu.
Nik		zuei	kartak	utzi	dizkizuet ;
Zuek	niri	ez dizkidatzue		itzuli.	

343. Jokoa - Non da pilota?

Irakasleak pilota edo beste zerbait gordetzen du ikasgelan. Ikasleek amatuko dute non dagoen :

- Pilota mahai pean da. – Ez. – Tirantaren barnean? – Hotz.
- Apalaren gainean. – Bero. – Liburuen gibelean? – Bai.

Aurkitu duenak gordetzen du pilota.

344. Aurkezpena - Moltsa aurkitu

- Maite – Moltsarik ez, zinemarik ez.
Zer egingen dute Peiok eta Maddik?
- Pantxo – Maddik Peiori bileta ordainduko dio.
- Maite – Ez! Peiok ez du onartuko
Maddiren dirua. Pentsa!
- Pantxo – Beraz, ordena pixka bat
ezar dezatela Peioren gelan.
- Maite – Hori! Badute zer egin!
- Pantxo – Ea! nork aurkituko duen moltsa!
- Maite – Peio eta Maddi badabiltza
xeka eta xeka, bila eta bila.

345. Lagunartean - Moltsa aurkitu.

- Maddi – Moltsa galdu duzu. Zer inporta du?
Zinema nik ordainduko dizut.
- Peio – Ezetz. Nahiago dut etxean egon.
- Maddi – Badakizu zer?
Zure gela ordrean ezarriko dizut.
- Peio – Nere gela ordrean ezarriko dugu.
- Maddi – Zer da kutxa hori mahai azpian?
Zer da kutxa horren barnean?
- Peio – Deus ez. Basoak, kikerak,
gateluak,asukrea, bixkotxak, zigarretak.
Bainan moltsarik ez.
- Maddi – Gauza bakoitza bere lekuan kokatuko dut.
- Peio – Alki bat mahaiaren ezkerrean.
Beste alkiak mahaiaren eskuinean.
- Maddi – Lerrazkin horiek non kokatzen dizkizut?
- Peio – Lerrazkinak kanpoan ezartzen ditut.
- Maddi – Mahaia gelaren erdian,
eta lore untzia mahaiaren erdi erdian.
- Peio – Argia telebistaren sahetsean
Aldizkarriakargiaren ondoan.
- Maddi – Gauza bakoitza bere lekuan da.
- Peio – Eta nere moltsa non da?
Ja, zer zozoa! Moltsa sakelan dut.
- Maddi – Ederki! Zinema eskainiko didazu.
Ala dirurik ez duzu?
- Peio – Goazen zure osabarengana, musean aritzera.



346. Errepika? - Norengana?

Non, nondik, nora, bizidunekin erran behar delarik, “-gan, -ganik edo -gandik, -gana” atzizkiak erabiltzen dira, hitzari loturtik. Edo “baitan, baitarik”, hitzetik bereiz. Lapurdin “baita” (chez) ikusten da etxe izenetan: “Aitatxi baita”

Non zaude? - Goikotxean, osabarengan

Nondik zatoz? - Plazatik, lagunenganik.

Nora zoaz? - Etxera, aitamengana.

Nire baitan akidura bat senditzen dut.

Nire baitarik ezin dut ezer (deus) egin.

Norengana joanen naiz? - Zoaz Maddirengana.

Harenganik zerbait ardietsiko duzu.

Norengan, norenganik, norengana?

Harengan, harenganik, harengana.

**347. Kantua - O Pello, Pello (xaramela 254)**

– O Pello, Pello, logale nauk eta jinen niza ohera?

– Irun ezan eta gero gero, irun ezan eta gero bai.

– O Pello, Pello, irun diat eta jinen niza ohera?

– Astalka ezan. Harilka ezan. Xuri ezan. Izazki ezan.

– Pika ezan. Jos ezan... Argia dun eta ez din balio.

348. Hiztegia - Gauzak non?

-340-341- moltsa: bourse. Zinema: *cinéma*. So: regard. Errexki: facilement. Kokatu: *contenir, mettre en place*. Gomitatu: *inviter*. Besaulki: *fauteuil*. Gibel: *arrière*. Sekulakotz: *toujours*. Sortu: *naître*. Aldatu: *se changer*.

-342-343- Eskerron: *bonne grâce*. Adierazi: *exprimer*. Bihurtu: *rendre, tordre*. Agertu: *révéler*. Atera: *sortir*. Apal: *bas, étagère*.

-344-345- Onartu: *accepter*. Ordena: *ordre*. Xerkatu: *chercher*. Kutxa: *coffre*. Baso: *verre*. Kikera: *tasse*. Gatelua: *bol*. Asukre: *sucre*. Bixkotxa: *biscuit, gâteau*. Zigarreta: *cigarette*. Lerrazkin: *ski*. Erdi: *milieu, moitié*. Ja: *oh !* Zozo: *imbécile*.

-346-347- Bizidun: *vivant*. -gan: *de la part de*. Atzizki: *suffixe*. Lotu: *lier*. Baita: *chez*. Bereizi: *séparer*. Akidura: *fatigue*. Ezin: *impossible*. Ezer: *rien*. Xaramela: *ritournelle*. Irun: *filer*. Astalkatu: *mettre en écheveau*. Harikatu: *effiloche*. Izazki: *tisser*. Pikatu: *tailler*. Josi: *coudre*.

35. Garazi

350. Aurkezpena - Herriko etxean

- Maite – Garaziko herriko etxean gara.
 Pantxo – Bilkura dute diru laguntza banatzeko.
- Maite – Nor biltzen dira?
 Pantxo – Auzapeza eta axuanta, idazkaria eta diruzaina.
- Maite – Zer duzu dozier hori?
 Pantxo – Hemen dut idazkariaren dozierra
- Maite – Zer aipatuko dute?
 Pantxo – Ostatuak eta merkatua;
 Maite – Uharteko gazitegia eta Irulegiko sotoa.
- Pantxo – Irulegiko arnoa, zer arno ona!
 Maite – Hets ezazu dozierra!
- Pantxo – Irulegiko arnoa, zer arno ona!
 Maite – Hets ezazu dozierra! Heldu dira.
- Pantxo – Egun on, jaun diruzaina. Egun on, jaun idazkaria.
 Maite – Egun on, andere axuanta. Egun on, jaun auzapeza



351. Gizartean - Herriko etxean

- Auzapeza – Dozier meta hori aztertuko dugu, diru laguntzak banatzeko.
 Diruzaina – Aurtengo buxeta biziki xuhur da. Diru guti eta zor anitz ditugu.
- Axuanta – Lehen dozierra: Irulegiko sotoa. Zinez tresneria ederra dute.
 Idazkarria – Arno ona egiten dute.
 – Urbidearen berritzea eskatzen dute, ondarkinen eramateko.
- Auzapeza – Bozka dezagun: ni alde naiz.
 Diruzaina – Ni aurka naiz, gastuen gatik.
 Auzapeza – Gehiengoa alde da. Sotoko urbidea erabaki dugu.
- Auzapeza – Zer eskatzen dute?
 Axuanta – Herri zergaren gutitzea eskatzen dute, ez bait dute mozkin anitz irabazi.
- Idazkarria – Ez badute irabazi, ez dute ordainduko.
 Diruzaina – Ez badute ordaintzen, ez dugu irabaziko. Ordainduko dute, zakutik edo zorrotik.



- Auzapeza – Nor da ados herri zerga gutitzeko?
Gehiengoa ados. Hurrupa bat edan dezagun.
- Diruzaina – Gutienagoa ez da ados.
Dirurik ez bada, hurruparik ez da.
Egarri bazarete, edan ura.
Uraren doia badugu.

352. Errepika - Egiatzko baldintza

Baldintza egiatzkoa lantzen dugu egun: “Hau gertatzen bada, hori izanen da ondorioa”. “Eritzen banaiz, ez naiz etorriko” Baldintza adierazteko, aditz joko berezia erabiltzen da, “baldin ba-” edo “ba-” aurrizkia gehituz:

“Baldin banaiz, bahaiz, bada, bagara, bazara, bazarete, badira” “Baldin badut, badun/k, badu, badugu, baduzu, baduzue, badute”.

- Baldintza:** Ni eritzen (baldin) banaiz,
Ondorioa: etorriko naiz
Baldintza: Ni ez (baldin) banaiz eritzen,
Ondorioa: ez naiz etorriko.
Baldintza: Gazteak mugitzen (baldin) badira
Ondorioa: herria iratzartuko da.
Baldintza: Gazteak ez badira mugitzen
Ondorioa: herria lokartuko da.
Baldintza: Lana egiten (baldin) badugu,
Ondorioa: soldata altxatuko dugu.
Baldintza: Lana ez (baldin) badugu egin
Ondorioa: ez dugu soldatarik altxatuko.
Baldintza: Gutuna igortzen (baldin) badiozu
Ondorioa: erantzuna ukanen duzu.
Baldintza: Gutunik ez badiozu idazten,
Ondorioa: ez zaizu erantzunik etorriko.



353. Eleketa - Herriaren geroa

Baldintzaren jokoa erabiliz, bakoitzak erranen du, nola hobe ditaken bere herriko egoera. Adibidez: “Gazteek ikasten (baldin) badute, lana aurkituko dute”



- Euskara ikasiz, nortasuna begira.
- Kirolak antolatuz, osagarria hobetzen.
- Lantegiak eraikiz, gizartea pizkor egonen.
- Zuhaitzak landatuz, bazterrak eder izanen.
- Herria antolatuz, ingurunea zainduko...

354. Aurkezpena - Bilkuraren jarraipena

- Mailux – Kontseiluaren bilkurak jarraitzen du.
- Pantxo – Diruzaina kexu da:
- Maite – “Hori ematen badiot
hari eman behar diot”
- Pantxo – “Horiei ez badiet ematen,
haiei ez diet emanen”
- Maite – “Dirua baldin badute
dirua emanen digute”
- Pantxo – “Dirua ematen badiegu,
ez dugu dirurik ukanen”
- Maite – “Beraz dirua bil eta ez eman”.
- Pantxo – Ea, zer erabakiko duten Uhareko gazitegiarentzat.
- Maite – Eta asteleheneko merkatuarentzat.

**355. Gizartean - Bilkuraren jarraipena**

- Auzapeza – Bilkura jarraitzen dugu, nahi baduzue.
Zein beste beste dozierra?
- Axuantia – Uharteko gazitegia.
- Idazkaria – Zer gasna ederrak. Ez dute bat igorri?
- Auzapeza – Zer derasazu? Ez gara salgai!
- Axuantia – Diru laguntza eskatzen dute
lantegia handitzeko.
- Diruzaina – Horiei emaiten badiet,
bestei eman behar diet.
- Auzapeza – Kooperatiba hori laguntzen
badugu, artzainak laguntzen ditugu.
- Idazkaria – Eta gasna onak janen ditugu. Ni alde.
- Auzapeza – Gehiengoa hiru. Gutiengoa bat.
Onartzen dugu. Azken dozierra.
- Axuantia – Merkatu sarien dozierra da.
- Diruzaina – Zer dute merkatu sariak?
Ez dira aski kario?
- Axuantia – Axuri saltzailek diote kario dela.
Xerri saltzaleak dio karioegi dela.
Zapatainak dio inguruko karioena dela.
- Idazkaria – Merkatu saria merke bada, urdea merke da.
Urdea merke bada, urdaiazpikoa merke da.



- Auzapeza – Dena dela, merkatu ederra antolatu behar dugu.
 Diruzaina – A! Ez badugu dirurik, ezin dugu
 Dirua baldin badugu, plaza berrituko dugu.
- Axuanta – Merkatu sariak diren bezela utziko ditugu.
 Auzapeza – Erran duzun bezela bozkatuko dugu.
 Aldi hontan aho batez mintzo gara.
- Diruzaina – Milesker. Ahamen bat jan dezagun.
 Herritarren osagarriari.

356. Atzizkiak - **-tegi (leku), -gailu (instrument)**

Arditegi: *bergerie*. Ardotege: *chai*. Bizitegi: *appartement*. Egutegi: *calendrier*. Eritegi: *hôpital*. Erletegi: *rucher*. Lantegi: *usine*. Oilategi: *poulailler*. Okindegi: *boulangerie*. Ordutegi: *horaire*. Urtzotegi: *palombière*. Zakurtegi: *niche*.

Berogailu: *appareil de chauffage*. Hozgailu: *réfrigérateur*. Irekigailu: *ouvre boîte*. Jostailu: *jouet*. Onkailu: *engrais*. Entzungailu: *répondeur*. Igogailu: *ascenseur*. Haizegailu: *ventilateur*. Deigailu: *sonnette*.

357. Kantua - **Sor lekua** (Elizanburu, kantu 62)

Sor lekua, utzi nuen, ondikotz, hala beharrez!
 Jainko ona urrikalduz betiko nere nigarrez:
 Primaderan hasi orduko, arbolak estaltzen lorez,
 Xoritto bat heldu da beti, nere herritik hegalez.



358. Hiztegia - **Garazi**

-350-351- Diruzain: *trésorier*. Dozier: *dossier*. Gazitegi: *saloir*. Aztertu: *analyser*. Buxeta: *budget*. Zuhur: *restreint*. Urbide: *conduit*. Berritu: *renouveler*. Bozkatu: *voter*. Alde: *pour*. Aurka: *contre*. Gastu: *dépense*. Gehiengo: *majorité*. Erabaki: *décider*. Eskatu: *solliciter*. Zerga: *impôt*. Gutitu: *diminuer*. mozkin: *bénéfice*. Zaku: *sac*. Zorro: *ventre*. Ados: *d'accord à égalité*. Gutienko: *minorité*. Doi: *un peu*.


-352-353- Baldintza: *condition*. Ondorio: *analyser*. Eritu: *tomber malade*. Aurrizki: *préfixe*. Gehitu: *ajouter*. Mugitu: *remuer*. Lokartu: *s'endormir*. Altxatu: *recevoir, percevoir*. Geroa: *l'avenir*. Egoera: *situation*. Antolatu: *aménager*. Ingurune: *environnement*. Zaindu: *protéger*.

-354-355-357- kexu: *faché*. Igorri: *envoyer*. Derasa: *il jase*. Handitu: *grandir*. Azken: *dernier*. Kario: *cher*. Urrikaldu: *avoir pitié, regretter*. Ordu: *heure*. Estali: *se couvrir*. Beti: *toujours*.

36. Etxean

360. Aurkezpena - **Etxe ikuska**

- Maite – Etxe zaharrak ederrak dira.
 Pantxo – Etxea zaharrago eta ederrago da.
- Maite – Lehen jendeak eta abereak
 toki berean bizi ziren.
 Pantxo – Zer? Jendeak behiekin nahas?
 Maite – Gero bereizi ziren.
 hemen ezkaratza jendeentzat.
 Hor barrukia eta arditegia.
- Pantxo – Familia guziak elgarrekin lo egiten zuen?
 Maite – Elgarrekin su inguruan.
 Pantxo – Sukaldea, logela, jangela, dena bat.
 Zer bizia!
- Maite – Gero bereizi zuten aita-amen logela
 eta haurrideena.
 Han sabaia zen belarrarentzat.
- Pantxo – Ederki. Peio eta Maddi badabiltza
 etxe zaharra ikusi nahiz.




361. Gizartean - **Etxe ikuska**

- Peio – Etxe zahar hori ikusten ahal dugu?
 Nagusia – Sar zaitezte. Erakutsiko dizuet.
 Hemen ezkaratzean garaeta hor barrukia zen.
- Peio – Erraiten dute lehen jendeak eta abereak
 toki berean bizi zirela.
 Nagusia – Bai eta gero bereizi ziren.
 Maddi – Orain ere gatu eta xakurrekin bizi gara
- Nagusia – XVII. mendean, etxeak handitu zituzten.
 Bizitegia antolatu zuten
 sukalde eta logelarekin.
- Peio – Logela bat denentzat.
 Nagusia – Lehen hola zen. Gero bi logela:
 bat burrasoentzat, bestea haurdientzat.
- Maddi – Ganean zer da?
 Nagusia – Igan gaiten bihitegira.
 Badakizue Ameriketarik artoa ekarri zutela.
 Biltzen zen artoa, bihitegian metatzen zuten.
- Peio – Eta belarra sabaian.



- Nagusia – Gaurregun abereak etxetik bereizirik daude:
barrukian, zerritegian, eta arditegian
- Peio – Tresnak tresnategian daude.
- Nagusia – Ez herdoiltzeko.
- Nagusia – Belarra tinki eta fresko metatzen da plastika pean.
Artoa kanpoan idortzen da.
- Maddi – Xorien hazkurri, amets?
- Nagusia – Sabai gain guzia bizitegi bilakatu da.
- Peio – Hain zuzen bizitegiaren bilan gabiltza.
- Maddi – Haatik ez behiekin. Ez dut marruma maite.
- Peio – Nik ez dut marrumarik egiten.
- Maddi – Marrakarik ez, baina zurrunga bai.



362. Errepika - Alegiazko baldintza nor

Egiazko baldintza ikusi dugu 35. ikastaldian. Orain ikasiko dugu ustezko baldintza: “Gertatu ez dena gertatu balitz, zer ondorio litzateke?”

Egin ez dutana egin banu, zer mozkin nuke?

“Aditz joko berezia erabiliko dugu: hemen NOR, hor NORK.

Nor	Baldintza		Ondorioa	
Ni	aberats	banintz,	uros	nintzateke
Hi	pobre	bahintz,	ilun	hintzateke
Hura	zalua	balitz,	airos	litzateke
Gu	Afrikarrak	bagina,	beltzak	ginateke
Zu	Asiarra	bazina,	horia	zinateke
Zuek	Asiarrak	bazinete	horiak	zinatekete
Haiek	Indiarrak	balira	gorriak	lirateke




363. Eleketa - Ametsetako lukinkak

Asma dezagun beste nonbaitekoa garela. Egoitza nolakoa litzateke: “Errege bazina, zure egoitza jauregia litzateke”.

Eta hi? Eta zuek? Eta Aitz?

- Inuitaren etxea elurrezkoa da.
- Artzainaren egoitza, bortuko etxola.
- Afrikarra lastozko, etxolan bizi.
- Marinelen egoitza, beren untzia.
- Udatiarrak ohesarean nahiago lo egin.
- Xoria leiho hegira badator.




Oharra: Ondorioan maiz ahalezkoa erabiltzen da baldintzaren orde:

“Xoria banintz, aira ninteke” edo “hegalak banituzke”.


Ikus Euskaraz Bizi 5.

364. Aurkezpena - Bizitegia alokatzen

- Maite – Zer duzu plana hori?
- Pantxo – Hau bizitegia da.
Hemen sukaldea, hor egongela, han logela.
- Maite – Hementxet mainugela, hortxet sotoa eta hantxet garaja (autotegia)
- Maite – Bizitegi hori ttipia da.
- Pantxo – Ez da hain ttipia, 15 metra luze, 7 largo.
Orotara 105 metra karratu.
- Maite – Hilabete saria zenbat da?
- Pantxo – Ez da kario. 8. 000 libera doi doia.
- Maite – Karioegi Peio eta Maddirentzat.
- Pantxo – Ikusiko dute. Behar abda gustatuko zaie.

**365. Gizartean - Bizitegia alokatzen**

- Peio – Etorri gatzazu bizitegi baten alokatzera.
- Maddi – Baduzu bizitegirik alokatzeko?
- Jabea – Bizitegi bat badut, ederra gainera.
- Maddi – Zenbat gela ditu?
- Jabea – Zaude: sukaldea, jangela, egongela, bi logela, ikuzgela eta komoditatea.
- Peio – Orotara zenbat eremu dauka?
- Jabea – 112 metra karratu ditu, nonbait han
- Peio – Autotegirik ez dut ikusten.
- Jabea – Autotegirik ez da.
Baina sot ttipiño bat bada.
- Maddi – Zinez nimiñoa.
- Jabea – Liburutegi hau liburuz betea da.
- Maddi – Mubleak zaharrak dira.
- Jabea – Zaharrak bainan azkarrak eta ederra.
- Maddi – Hau da logela?
- Jabea – Logela bakoitzean bada ohea, armairua eta jantzitegia.
- Peio – Zenbat galdatzen duzu?
- Jabea – 8 600 libera. Zergak barne.
haatik berogailua bestalde.
Makurrak zuen gain.
- Maddi – Kario da. Hasteko guretzat karioegi.
- Jabea – Ez, merke da. Ikus zer bista den!
- Peio – Bainan ez dugu bista alokatzen!
- Jabea – Gauza guziak berriak bezala dira.



Maddi – So egizu. Krisketa hautsia da.
 Jabea – Gure haurraren tzarkeria.
 Peio – Argia ez da pizten.
 Jabea – Deus ez hunki. 2.200 liberetan uzten dizuet.
 Maddi – Milesker. Kitorik ere karioegi da.

366. Errepika - **Alegiazko baldintza nork**

Nork		Baldintza	Ondorioa	
Nik	lana	banu,	nahiago	nuke.
Hik	lana	bahu,	nahiago	huke.
Harek	lana	balu,	nahiago	luke.
Guk	lana	bagenu,	nahiago	genuke.
Zuk	lana	bazenu,	nahiago	zenuke.
Zuek	lana	bazenute,	nahiago	zenukete.
Haiek	lana	balute	nahiago	lukete.

367. Kantua - **Goizian argi hastian** (Etxahun Iruri)

Goizian argi hastian, ene lehio hegian
 Txori bat pausatzen da eta goratik hasten kantan.
 Txori ejjerra, hain alegera, entzūten haidanian,
 Ene bihotzeko trixtūra laster duak aidian. (Xaramela 135)

368. Hiztegia - **Etxean**

-360-361- Ikuska: *en visitant*. Jangela: *salle à manger*. Haurride : *frère et soeur*. Bizitegi: *appartement*. Burraso, guraso: *parent*. Bihitegi: *grenier*. Zerritegi: *porcherie*. Tresnategi: *hangar à outil*. Herdoiltze, herdoildu : *rouiller*. Tinki: *serré*. Fresko: *frais*. Plaztika: *plastique*. Marruma: *beuglement*. Zurrunga: *ronflement*. Zurrumuru: *murmure*.

-362-363- uste: *supposition*. Aberats: *riche*. Pobre : *pauvre*. Ilun: *triste*. Afrikar: *africain*. Asiar: *asiatique*. Indiar: *indien*. Lukinka: *saucisse*. Ametsetako lukinka: *château en Espagne*. Nonbait : *quelque part*. Egoitza: *demeure*.

-364-365-367- alokatu: *louer*. Alokairu: *loyer, salaire*. Metra: *mètre*. Largo: *large*. Karratu: *carré*. Eremu: *surface*. Gainera: *en plus*. Komoditate : *W.C.* Autotegi: *garage*. Ñimiño: *minuscule*. Liburutegi: *bibliothèque*. Armairu: *armoire*. Jantzitegi: *penderie*. Berogailu: *chauffage*. Makur: *dégat*. Krisketa: *serrure*. Kito : *gratuit*. Hegi: *bord*. Pausatu: *se poser*. Alegera: *joyeux*. Trisura: *tristesse*.

37. Jantzi denda



370. Aurkezpena - Oinetako gozoak

- Pantxo – Zapata denda hortan bada zernahi oinetako.
 Maite – Zinez! Zapatak, espartinak, botak.
 Pantxo – Espartin hauk gustatzen zaizkizu?
 Maite – Bai, espartinak gustatzen zaizkit.
 – Niri gustatzen zaizkit
 Zuri gustatzen zaizkizu.
 Biei gustatzen zaizkigu.
- Maite – Aldiz botak ez zaizkit gustatzen.
 Pantxo – Ez zaizkitzu gustatzen? Niri ere ez.
 Bat ez besteari ez zaizkigu gustatzen.
- Maider – Peio eta Amaia heldu dira zapata eroatera.
 Ea zerbaiz gustatuko zaien!



371. Gizartean - Oinetako gozoak

- Amaia – Sei ehun libera gelditzen zaizkigu.
 Peio – Nik oinetako berriak behar ditut.
 Behar gorria.
- Amaia – Zapeta denda hortan sartuko gara.
 Zernahi badute salgai:
 espartin, zapeta, ala bota.
- Peio – Zapeta pare on bat nahi dut.
 45 da nire izaria (neurria).
- Saltzaile – Zapeta hauk gustatzen zaizkizu?
 Larruzkoak dira.
- Peio – Mehegiak bait dira (baitira)
 Ura sartuko zaie euria denean.
- Saltzaile – Horra eskalapoin lodiak.
 Horiekin ez zaizkizu oinak bustiko.
 Zurezkoak dira.
- Peio – Ezkerrekoak min egiten dit.
 Ttipiegi da.
- Saltzaile – Dolu du, baina zure izarian
 ez dut beste zapatarik.



- Amaia – Ez da erretx zure beztitzea.
Gauza guziak handiegi edo hertsiegi dituzu.
- Peio – Zapeta zaharrekin gostuan nabil.
- Amaia – Ez naiz harritzen,
dendan ahantzi dituzu.

372. Nor nori nork? - Guk zuei, zuek guri.

Jadanik badakizu:

178. Nik haurrari opila erosi diot.
185. Zuk anaei jostailua hautsi diezu.
272. Aitak hurrei udareak ekarri dizkie.
342. Zuk niri zer eman didazu? Eta nik zuri?



NORK	NORI	(EZ)	ZER bakar	EGIN	(BAI)
Guk	hiri,	(mutil)	zer	egin	diagu?
Hik	guri,	ez diguk	ezer	eman.	
Guk	hiri,	(neska,)	gona	erosarazi	dinagu
Hik	guri,		salneurria	ordaindu	digun
Guk	zuri,		lanpostua	ardietsi	dizugu,
Zuk	guri,	ez diguzu	soldata	gehiarazi.	
Guk	zuei,		euskara	irakatsi	dizuegu
Zuek	guri,		euskaraz	hitzegin	diguzue
NORK	NORI	(EZ)	ZER anitz	EGIN	BAI
Guk	hiri,	(neska,)	zapatak	erosarazi	dizkinagu.
Hik	guri,		eskerrak	adierazi	dizkigun.
Guk	zuei,		zientziak	irakatsi	dizkizuegu,
Zuek	guri,		oporak	eskatu	dizkiguzue



373. Hizkiak - Egianarazi, eragin

Egitura eragile edo faktitiboak erabiltzen dira norbaiti zerbait aintzen diogularik. Ad itzak bi eratan aldatzen dira: "arazi" atzizkia edo "era- ira-" aurrizkia hartuz:

- Egin, eginaraz, -i, -te: *faire faire*; eragin: *influencer*.
- Eman, emanaraz: *faire donner*; eraman: *emporter*.
- Entzun, entzunaraz: *faire entendre*; erantzun: *répondre*.
- Etor, etorraz: *faire venir*; erator: *dériver de*.
- Hil: *mourir*, *tuer*; erahil: *assassiner*.
- Ibil, ibilaraz: *faire marcher*; erabil: *utiliser*.
- Ikas, ikasaraz: *faire apprendre*; irakats: *enseigner*.
- Ikus, iusaraz: *faire voir*; erakuts: *montrer*.
- Ikur: *symbole*; irakur: *lire*.
- Jaiki: *se lever*; eraiki: *élever, construire*.

374. Aurkezpena - Sorpresa handia

- Pantxo – Arropa denda hortan bada zernahi soineko
 Maite – Egia! Bada zaia; gona, trikota.
 Pantxo – Galtza, palto, atorra.
 Maite – Nik gona hau erosiko diot saltzeari.
 Zuk zer erosiko diozu?
 Pantxo – Soinekoak kario dira.
 Deus ez diot erosiko.
 Maite – Bai, karioegi dira.
 Fitsik ez diogu hartuko.
 Pantxo – Ikus oseba eta izaba
 zerbait erosi nahiz ilobarentzat.
 Maite – Ea, zer erosiko dioten.

375. Gizartean - Sorpresa handia

- Ttantta – Iloba Arantxari soineko bat eman behar diozu.
 Zure gazalabaren urteburua da.
 Otto – Oiei, aiei! Ahantzi zait.
 Ttantta – Bai, urte guziz bezela!
 Otto – Sorpresa handia egingen diogu.
 Nire alabatxirentzat
 jantzi eder bat erosiko dut.
 Saltzailea – Nahikoa badut.
 Hona bularretakoak eta galtzerdiak.
 Horra trikotak eta galtzak.
 Hara gonak eta zaiak.
 Ttantta – Gona hau hartuko diogu.
 Otto – Ez ilunegi da.
 Ttantta – Beraz gona gorri hori.
 Otto – Ez laburregi da. Beste hura.
 Saltzaile – Zaia hau biziki pollita da.
 Otto – Zorionak alabatxi.
 Sorpresa handia egin dizugu.
 Iloba – Aitatxi, sorpresa handiak gustatzen zaizkit
 Ttantta – Begiak hets!
 Iloba – Milesker! Gehiegi da.
 Ttatta – Jantz ezazu, ea nola duzun.
 Iloba – Baina! sorpresa... handiegi da!
 Ttantta – Zaia luzeegi da. Errana nizun!
 Otto – Heldu den urtean ederki izanen da
 iloba – Haatik aurten zaia herrestan!

(Gaia: Jalgi hadi)



376. Eleketa - **Sorpresa handia**

Konda dezagun erosketak nola egiten diren, familiaian edo lagunartean, ahalaz besteiei eginaraziz

Anaiak arrebari liburua erosarazi dio.
Arrebak erosi du, bainan anaiari ordaintarazi.

Ttanttak ilobari presentak emanen dizkio.
Ilobak eskerrona ttanttari adieraziko dio.
Ttanttak eskerrak aditu ditu,
eta ilobak presentak eramanen.

Laurentxek Mirentxuri atorra josarazten dio,
Mirentxuk josten bait daki (baitaki).
Neskak mutilari gela apaintarazten dio,
mutilak ongi marrazten bait du (baitu).



377. Kantua - **Iruñeko ferietan**

Iruñeko ferietan, iragan san ferminetan,
Ehun zaldi arribatuz, andaluziatik tropan.
Merkatu eder bat zautan, zaudelarik bi lerrotan.

Bat zen pikarta xuria, hartan bota dut begia.
Andaluzak egin zautan bi untz urrheren galdia.
Eskain orduko erdia: "Harzak, hire duk zaldia".

378. Hiztegia - **Etxean**

-370-371- Zernahi: *beaucoup*. Izarri, neurri: *mesure*. Arin: *léger*. Batere: *pas du tout*. Larru: *cuir*. Larruzko: *en cuir*. Mehe: *mince*. Eskalapoi: *sabot*. Bustitu: *mouiller*. Min: *mal*. Dolu: *regret*. Beztitu: *(se) vêtir*. Harritu: *s'étonner*.

-372-373- Salneurri: *prix*. Lanpostu: *travail*. Hizki: *lettre, élément du mot*. Eragin: *influence*. Egitura: *structure*. Eragile: *dynamique*. Faktitibo: *factitif*. Norbait: *quelqu'un*. Era: *forme*. Arazi: *faire (faire)*.

-374-375- Sorpresa: *surprise*. Arropa, soineko: *robe*. Zaia: *robe*. Trikota: *tricot*. Palto: *veste*. Fitsik: *rien*. Gazaita, aitatxi: *parrain*. Amatxi, gazama: *marraine*. Gatseme semeatxi: *filleul*. Gazalaba alabatxi: *filleule*. Aitona: *grand père*. Amona: *grand mère*. Semetxo: *petit fils*. Alabatxo: *petite fille*. iloba: *neveu, nièce*. Nahiko: *assez*. Bularretako: *soutien-gorge*. Galtzerdi: *bas*. Ilun: *sombre*. Gehiago: *plus*. Gehiegi: *trop*. Aurten: *cette année*. Herresta: *trace, traîne*.

-376-377- Aginte: *autorité, commandement*. Iruñea: *Pampelune*. Arribatu: *arriver*. Tropa: *troupe*. Lerro: *rang*. Untza: *once*. Urre: *or*.

38. Gutunak

380. Aurkezpena - Gutuna ttanttari

- Daniel – Mirentxu eta Xabi bakantzetan dira
 Maite Mirentxu eta Xabi oporretan dira.
 Daniel – Letra ixkiriatzan diote ttanttari.
 Maite – Gutuna idazten diote izabari.
 Daniel – Karta postalak erosten dituzte.
 Maite – O zein pollitak: Donibane Garazi, zitadela, eliza, Errobi.
 Daniel – Tinbreak ere erosi behar dituzte.
 Maite – Ttanta kontent izanen dela!

381. Familian - Gutuna ttanttari

- Xabi – Telefonaz berriak emanen ditugu.
 Mirentxu – Zer diote Ottok eta Ttanttak
 Xabi – Nehor ez zen etxean.
- Mirentxu – Behorlegiko mendia herrixkarekin?
 Xabi – Ikus Errobiko zubia.
- Mirentxu – Oro har, zitadela da gauza berezia.
 Dudan nago.
 Xabi – Nik lau kartak erosi ditut.
 Orain zuk idatziko duzu.
- Mirentxu – “Ttanta eta otto maiteak.
 Opor ederrak iragaiten ditugu Garazin
 Eguzkia dugu egun guziz.”
- Xabi – “Arradoira igan gara
 eta Errobin igeri ibili gara.”
- Mirentxu – “Izan ongi eta mila potta.
 Zure ilobak: Mirentxu.”
- Xabi – “Eta Xabi.” Ez ahanzt helbidea.
- Mirentxu – “Andere Menane Oxandabaratz
 Elizagaraia, 64 220 Gamarte.



Xabi – Tinbrea ezarriko dut.
 Mirentxu – Gutun ontzian sartuko dugu.
 Bihar goizean helduko zaie.

Ttantta – Kuku ilobak, Nori idatzi diozue?
 Mirentxu – Bainan zuri, ttantta!

382. Nor nori nork - **Guk hari, harek guri.**

Jadanik badakizu:

178. Nik haurrari opila erosi diot.

185. Zuk anaei jostailua hautsi diezu.

272. Aitak haurrei udareak ekarri dizkie.

342. Zuk niri zer eman didazu? Eta nik zuri?


372. Zuek guri zer egin diguzue? Eta guk zuei?

Nork	Nori	Ez	Zer bakar	Egin	Bai
Nik	Itziarri		urte on	erran	diot,
harek	niri		berdin	desiratu	dit.
Hik	lagunari			telefonatzen	diok, mutil,
harek	hiri	ez din		erantzunen	dik.
Hik	adiskideari		gutuna	igorri	dion, neska,
harek	hiri			erantzun.	
Guk	aitari		oparia	igorri	diogu,
harek	guri		eskerrona	eman	digu
Zuek	nagusari		baimena	eskatzen	diozue,
harek	zueri	ez dizue	onarmena	ukatuko	
Nork	Nori	Ez	Zer bakar	Egin	Bai
Nik	Aitzoli		zorionak	adierazi	dizkiot,
harek	niri		eskerrak	eman	dizkit.
Zuk	amari		opariak	igorri	dizkiozu,
harek	zuri		gozokiak	eman	dizkizu
Zuek	alargunari		doluminak	adierazi	dizkiozue,
harek	zueri	ez dizkizue	bihozminak	aipatu	

383. Eleketa - **Gutunak**

Ikastaldi honetako gutunak eredutzat hartuz, ikasleek alegiazko eskutitzak idatziko dituzte jendakari eta lagunei.

- Oporrak eta bidaiak konda.
- Eguberriko eta urtatseko agiantzak.
- Zorionak edo doluminak adieraz.
- Lan galde edo eskaintza.
- Diru laguntzaren eskaera...




384. Aurkezpena - Lan bilan

- Daniel – Mixel lanik gabe da. .
 Maite – Lana bilatzen ote du?
 Daniel – Bai, bai. Lan bilan dabila.
- Maite – Gutuna idatz dezala.
 “Jaun Zuzendaria”.
- Daniel – “Lan ttipi bat nahi dut,
 Maite – soldata eder batekin.”
 Daniel – sinadura: Mixel langile.
- Maite – Gutuna estalgiren barnen sar.
 Daniel – Tinbrea ahanzi gabe.
- Maite – Uste duzu lana izanen duela.
 Daniel – Hori ikusiko!

385. Lagunartean - Lan bilan

- Maddi – Sei hilabete langabezia zarela
 lan bat bila ezazu.
- Mixel – Zer uste duzu oporretan naizela?
 Jo hara jo hona banabil. Lanik ez da.
- Maddi – Idatz ezazu gutun eder bat
 eta zure bizibidea igor ezazu agentzietara.
- Mixel – “Jaun zuzendaria.”
- Maddi – Eta ez: “Zuzendari jauna.”
- Mixel – “Entzun dut asura agentzia
 hedatu nahi duzula eskualde guzietara.”
- Maddi – “Bereziki herri ttipietara.”
- Mixel – “Idazkaritza diploma badut
 bai eta hiru urteko esperientzia”.
 – “Gainera euskara ongi badakit,
 eskolan landu bait dut.
- Mixel – “Beraz zuk behar bezalako idazkaria naiz.
 Zurekin soldata aipatu nahi dut.”
- Maddi – Ez araz! “Berehala lanean hasi nahi nuke.
 Ikus arte. Mixel Hirigarai.”
- Mixel – Denbora berean Amaiari karta bat
 igorriko diot.
- Maddi – Erraiteko lan bat aurkitu duzula?
- Mixel – “Alfer eta uros. Hori da hori bizia. Bi musu.”
- Maddi – Kasu estalgiak ez nahas.
 Bestenaz luzaz “uroso”
 izanen zara!
- Mixel – Zer uste duzu ala.



CURRICULUM VITAE
Mixel Hirigarai .. Biz
1965: Baigorri sortua.
1980: EUSKAL GAITASUN AGIRIA.
1982: BAKALOREA.
1985: IDAZKARITZA DIPLOMA.
1986-1989: IDAZKARITZA LANA

Hirigarai

386. Errepika - Nor nori nork ? GUK HAIEI, HAIEK GURI

Nor	Nori	Ez	Zer egin (bakar)	Bai
Nik haiek	haurrei niri		jostailua irriñoa egin	eskaini diet didate.
Hik haiek	lagunei hiri	ez diate	gozokia banatu milesker erran.	diek, mutil,
Hik haiek	ikaslei	ez dinat	ipuina irakurtzen kasurik egiten.	dien, neska,
Guk haiek	adiskidei guri		eskutitza igortzen erantzuna itzuliko	diegu, digute.
Zuek haiek	lantegiei lantegiei		lana galdatu lanerdi eskaini	diezue, dizute.

NOR edo ZER anitzean delarik, aditz lagunak “ZKI” artizkia hartzen du: haiek niri dizkidate, hiri dizkiate/dizkinate, guri dizkigute, zuri dizkizute, zuei dizkizute.

387. Kantua - Auzoan zer berri (Xaramela 62)

Auzoan zer berri den dugun egin kantu.
Zonbaiten berriekin, nola ez harritu?
Andrea erori ta senarrak minartu:
Mixelengo Batitak adarrak baditu.

**388. Hiztegia - Gutunak**

-388- -381- Ttanta: *tante*. Bakantzak: *vacances*. Izaba: *tante*. Karta postal: *carte postale*. Zitadela: *citadelle*. Tinbre: *timbre*. Kontent: *content*. Nehor: *personne*. Aizu: *écoute*. Elizakari: *dévo*. herrixka: *village*. Duda: *doute*. Eguzki: *soleil*. Helbide: *adresse*. Kukutu: *se cacher*.

-382- -383- desiratu: *souhaiter*. Erantzun: *répondre*. Opari: *cadeau*. Baimen: *autorisation*. Onarmen: *consentement*. Ukatu: *refuser*. Dolumin: *condoléance*. Bihozmin: *chagrin*. Eredu: *modèle*. Alegia: *fiction*. Eskutitz: *lettre*. Jendaki: *parenté*. Bidai: *voyage*. Kondatu: *raconter*. Agiantza: *souhait*. Eskaintza: *offert*. Eskaera: *demande*.

-384- -385- sinadura: *signature*. Estalgi: *enveloppe*. langabezia: *chômage*. Jo: *frapper, aller*. Bizibide: *métier*. Agentzia: *agence*. Asura: *assurance*. Hedatu: *étendre*. Eskualde: *région*. Idazkaritza: *secrétariat*. Diploma: *diplôme*. Esperientzia: *experience*. Uros: *heureux*. Nahasi: *mélanger*.

-386- -387- irriño: *sourire*. Lanerdi: *travail à mi-temps*. Artizki: *particule*. Arribatu: *arriver*. Minartu: *se blesser*. Adar: *corne*.

39. A zer eguna!

390. Aurkezpena - Asurantz bulegoan

- Maite – Asurantz bulegoan gara.
 Daniel – Egun on, andere idazkaria
- Maite – Ken zaitez hortik!
 Bulegoa laneko da.
- Daniel – Zer lan? Ez duzu tresnarik.
 Horizu idazmakina
- Maite – Papera ezartzen diot.
 Daniel – horra dozierrak.
- Maite – Hementxet gutunak.
 Daniel – Erantzunaren beha daude.
- Maite – Bederatziak dira.
 Bulegaria heldu da.
- Daniel – Nagusia ere bai.



391. Gizartean - Asurantz bulegoan

- Nagusia – Bederatziak eta laurden dira.
 Zer nahi lan badugu egiteko.
- Idazkaria – Bederatziak eta hogeia jaanik!
- Nagusia – Dozier oriek irakurrita gero
 makinaz idatziko dituzu.
- Idazkaria – Bai, bai idazmakina hartzen dut,
 eta berehala hasten naiz.
- Nagusia – Faturra etorriko delarik
 hamaikak izanen dira.
- Idazkaria – Gutunak hartuko ditut
 eta gero erantzunak prestatuko ditut.
- Nagusia – Lan hori bururatuko duzularik,
 hor daude artxibak sailkatzeko. Banoa.
- Idazkarria – Ze ez ba! (Mixel badator)
 Egun on laguna. Non zabiltza?
- Laguna – Hamaikak laurden guti dira.
 Goazen. Hurrupa bat edan eta, lanera itzuliko zara.
- Idazkarria ostatura doa lagunarekin.
- Idazkaria – Solasean ari garelarik
 Oren bata bildu dugu.
- Laguna – Hain zuzen bazkaltzeko tenorea dugu.
 Arratsaldea guretzat hartuko dugu.



- Idazkaria – Bihar nagusiak zer erranen dit?
- Laguna – Holaxet oharuko da zure beharra baduela.
- Idazkaria – Atsedean pixka bat hartzen delarik biharamunean lan doblea egiten da.

392. Nor nori nork? - Aditz joko osoa

Nor bakarra: Nork sagarra eman dio nori?

	NIRI	HIRI	HIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAIEI
Nik		diat	dinat	diot			dizuet	diet
Hik M	didak			diok	diguk			diek
Hik N	didan			dion	digun	dizu		dien
Hark	dit	dik	din	dio	digu		dizue	die
Guk		diagu	dinagu	diogu		dizugu	dizuegu	diete
Zuk	didazu			diozu	diguzu			diezu
Zuek	didazue			diozue	diguzue			diezue
Haiek	didate	diate	dinate	diote	digute	dizute	dizute	diete

NIRI	HIRI (M, N)	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAIEI
Nik		dizkiat /nat	dizkiot	dizkizut	/zuet	dizkiet
Hik/N	dizkidak		dizkiok	dizkiguk		dizkiek
Hik/N	dizkidan		dizkion	dizkigun		dizkien
Hark	dizkit	dizkik /n	dizkio	dizkigu	dizkizu /zue	dizkie
Guk		dizkiagu /nagu	dizkiogu	dizkizugu/zuegu		dizkiete
Zuk	dizkidazu		dizkiozu	dizkiguzu		dizkiezu
Zuek	dizkidazue		dizkiozue	dizkiguzue		dizkiezue
Haiek	dizkidate	dizkiate /nate	dizkiote	dizkigute	dizkizuete/zuete	dizkiete


393. Eleketa - Nork zer eman dio nori

Ikasleek NOR NORI NORK osoa landuko dute adibide berean ahal diren galde guzietan erantzunez. Ikus Jo-ta-ke, 2, 209. or

- Bulegariak ez die egia erran etxekoei.
Eta zuk? Zuek? Guk? Denek?
- Nik lagunari sagarrak eman dizkiot.
Eta hik? Zuek? Guk? Ximunek?
- Fakturrak idazkariari gutunak ekarri dizkio.
Eta niri? Guri? Zueri? Lagunei?

394. Aurkezpena - Idazkariaren gezura

- Maite – Bulegaria lagun batekin ibili da egun osoan ostaturaz ostatu.
- Daniel – Etxera doa. Iluna da.
- Maite – Zer erranen dio emazteari?
- Daniel – Gezurra: hiru orenetan bulegoan nintzen
- Maite – Hiru orenetan bulegoan zinen?
- Daniel – Zazpietan bulegoan ginen.
- Maite – Zazpietan bulegoan zineten?
- Daniel – Baina gezurrak badu bere buztana
- Maite – Bulegariaren gezurra. Entzun.

**395. Gizartean - Idazkariaren gezura**

- Idazkaria – Arratsalde on, maitea.
- Emazte – Gau on izatekotz.
Beranta da. Non zinen, gizon.
- Idazkaria – Bulegoan nintzen. Egun guzian.
Izigarriko lana baginuen.
- Emaztea – Bulegoan zinen? Egun guzian?
Izigarriko lana bazinuten?
- Idazkaria – Hamaikak eta erditan kliente bat etorri zen.
Baina zer elasturia zuen!
- Emaztea – Eguerdian elgarrekin bazkaldu zineten.
- Idazkaria – Ahamen bat doi doia hartu genuen.
Janeta, berriz bulegora itzuli ginen.
- Emaztea – Zer tenoretan ote?
- Idazkaria – Bietan edo biak eta erditan,
nonbait han.
- Emaztea – Nonbait han?
- Emaztea – Eta gero zer egin zinuten.
- Idazkaria – Klienta despeituta,
7 dozier landu genituen nagusiak eta nik.
- Emaztea – Nagusiak eta zuk? Harrigarria!
- Idazkaria – Eta zuk zer egun iragan zinuen.
- Emaztea – Beti bezela, lan eta lan.
- Idazkaria – Badakit langile handia zarela, zu ere.
Norbait etorri zen?
- Emaztea – Ez, nehor ez zen etorri.
- Idazkaria – Norbaitek deitu zuen.
- Emaztea – Bai zure nagusiak. Bi aldiz
Hamaiketan eta hiruak eta erditan.



Idazkaria – Zer nai zuen?
 Emaztea – Uste zuen etxean zinela.
 Idazkaria – A! Etxean nintzela...

394. Aurkezpena - **Idazkariaren gezura**

Noiz itzuli da bulegaria etxera?

1. Ilunabarrean.
2. Iluntzean.
3. Iluna hasten denean.
4. Iluna hasten delarik.
5. Iluna hasi-ta gero.

Noiz atera zen idazkaria?

1. Lan denboran.
2. Lana hastean.
3. Lana bururatu zuenean.
4. Lana bururatu zuelarik.
5. Lana bururatu-ta gero.



397. Kantua - **Nungoa zira zu?**

Nungoa zira zu? – Garaziko nuzu ni.
 Nola deitzen zira? – Deitzen nuzu Rosalie.
 Nora zoaz zu? – Baigorriara noa ni.

398. Hiztegia - **A zer eguna!**


-390-391- Idazmakina, idazgailu: *machine à écrire*. Bulegari: *employé de bureau*. Jadanik: *déjà*.
 Fatur: *facteur*. artxiba: *archive*. Sailkatze: *classer*. Solas: *causette*. Holaxet: *ainsi*. Ohartze:
s'apercevoir. Doble: *double*.

-394-395- Buztan: *queue*. Izatekotz: *plutôt*. Klienta: *client*. Elasturia: *bavardage*. Despeitu: *recon-
duire*.

40. Musean

400. Aurkezpena - Musean ikasten

- Maite – Musean ikasten ari dira.
 Daniel – Nor ote?
 Maite – Ttanta eta lau ilobak.
 Daniel – Arantxa, Xabi, Mirentxu, Intza.
 Maite – Badazkitzu museko kartak?
 Daniel – Ze ez ba! makila, ezpata kopa.
 Maite – Kopa edo goporra.
 Daniel – Makila, ezpata, kopa eta arrosa.
 Maite – Arrosa edo urrea.
 Daniel – Zuk badazkitzu karten balioak?
 Zein dira handienak?
 Maite – Errege, zaldi, xango...
 Daniel – Geldi. Musean ikasten ari dira.



401. Etxean - Musean ikasten

- Arantxa – Musean ari nahi dugu.
 ez dakigu denek.
 Irakatsiko diguzu ttanta?
 Ttanta – Lehenik kartak ikasi behar dituzue.
 Lau andana badira:
 makilak, ezpatak, goporrak eta urreak.
 Xabi – Arantxak makilak ditu eta nik ezpatak.
 Mirentxu – Hauk goporrak dira.
 Ttanta – Bai goporrak edo kopak.
 Intza – Nire kartak urreak dira.
 Ttanta – Bai urreak edo arrosak.
 Zein dira karta horien izenak?
 Arantxa – Nik badazkit.
 Errege zaldi, xango, zapia, seia,
 bosta, laua, hirua, bia, bata.
 Ttanta – Musean zortzia eta bederatzia ez dira erabiltzen.
 Intza – Nola aritzen musean?
 Ttanta – Musean lau zati badira:
 handia, ttipia, pareak eta jokoa.
 Arantxa – Karta handiena erregea da.
 Gero zaldia, xangoa, zazpia, seia eta beste.

- Ttantta – Gero ttipia jokatzten da.
Karta ttipiena nagusi da. Bata.
- Xabi – Bata, gero bia, hirua, laua eta beste.
- Ttantta – Hirugarren zatian pareak jokatzten dira.
Pare hutsak, medeak edo dobleak.
- Mirentxu – Laugarren zatia jokoa da.
Hemen puntuak kondatu behar dira.
gero pare handienak.
- Ttantta – Laugarren zatia jokoa da.
Hemen puntuak kondatu behar dira.
Erregeak, zaldiak, xangoak hamar puntu.
Beste kartek beren balioa.
- Intza – Hamar, hogei, hogeita hamar,
hogeita hameka.
- Ttantta – Hain zuzen 31 da jokorik hoberena.
Gero 32, 40, 39, 38, eta abar...
- Arantxa – Beraz jokorik txarrena 33a da.
- Ttantta – Bai jokorik ez bada puntu gehiena nagusi.
Hogeita hamarra da hoberena.
Joko berdineki esku denak irabazten du.

402. Errepika - **Museko kartak**

Musean ari aitzin ikasleek kartak eskutatzen dituzte.

- Zenbat karta dira museko jokoa?
- Zein dira 4 itxurak? hamar zenbakiak?
- Zein dira museko 4 zatiak?

1. handia - Zein dira 4 karta handienak?

2. ttipia - Zein dira 4 karta ttipienak?

3. Pareak - Pare xume bat egin; gero medeak, dobleak.
- Joko bakoitzak zenbat ttantto balio du?

4. Jokoa - Zenbat puntu balio du erregeak, zaldiak, xangoak?

- Zein da jokorik hoberena? Zein dira 31 egiteko 4 moldeak?
- 31-tik zenbat ttantto? Beste jokoetarik?

5. Pundua - Jokorik ez bada, zein da puntu hoberena?

- Zein dira 30 egiteko 4 moldeak?
- Pundutik zenbat ttantto?

403. Eleketa - **Karteataz mintza**

Ikasle bakoitzak hautatzen ditu 4 karta, ustez hoberenak.

Kondatzten du zenbat ttantto balio duten.

Parioen egiteko hiztegia ikasten du.

404. Aurkezpena - Mus! ez da musik

- Maite – Mus!
 Daniel – Ez da musik!
 Maite – Ilobek musean ikasi.
 Daniel – Ttanttarekin ariko dira.
 Maite – Handi, ttipi, pare, joko.
- Daniel – Pareak baditut: 2 zaldi.
 Maite – Nik ere bai: 2 errege.
 Daniel – Nik medeak ditut 3 zaldi.
 Maite – Eta nik dobleak: 2 errege, 2 seieko.
- Daniel – Paretan zu nagusi zira.
 Bainan jokoan ni nagusi naiz.
 Maite – $10 + 10 + 10 + 1$
 Daniel – Heldu bait da 31. Joko hoberena
 Maite – Iso! Musean ariko dira.

405. Etxean - Mus! ez da musik.

- Arantxa – Mus partida bat egin dezagun.
 Ttantta eta ni buruz buru ariko gara.
 Ttantta – Nik esplikatuko dizuet jokia
- Arantxa – Ni esku eta zu karta emaile.
 Nahasi behar dituz.
- Ttantta – Pika.
 Arantxa – Onak niretzat.
 Ttantta – Bakoitzari lau karta.
 Kontent ez dena, mus joan dadila.
- Arantxa – Mus!
 Ttantta – Nik ere mus. Zenbat karta nahi duzu.
 Arantxa – Hiru.
 Ttantta – Eta nik bi.
 Arantxa – Berriz ere mus.
- Ttantta – Ez da musik. Mintza handira.
 Paso, inbido edo hordago.
 Paso: ez da jokorik.
 Inbido: ttantto bat jokatzen da.
 Hordago: mantxa osoa jokatzen da.
- Arantxa – Paso handira.
- Ttantta – Inbido.
 Erantzuna: tira edo iduki.
 Tira: ttantto bat irabazten dut.
 Iduki: gero ikusiko; hoberenak bi ttantto.
- Arantxa – Tira.
 Ttantta – Ttipia?
 Arantxa – Inbido.
 Ttantta – Iduki eta bi ttantto. Pareak?



Arantxa – Pareak bai.
 Ttantta – Pareak bai.
 Arantxa – Hor dago.
 Erantzuna: tira edo kanta.
 Tira: ttantto bat niretzat.
 Kanta: hoberenak mantxa irabazten du.

Ttantta – Tira. Jokoa?
 Arantxa – Jokoa bai.
 Ttantta – Jokoa bai.
 Arantxa – Inbido.
 Ttantta – Iduki. Mantxa bururatu da.

Arantxa – Orain konda ditzagun ttanttoak.
 Ttantta – Ikus ttipia.
 Arantxa – Bata
 Ttantta – Bosta. Bi ttantto zuretzat.
 Arantxa – Bi ttantto niretzat.

Ttantta – Ikus jokoa.
 Arantxa – Hogeita hameka.
 Ttantta – Nik hogeita hamabi.
 Zuretzat inbida iduki: bi ttantto.
 Hogeita hamekak berea hiru ttantto.

Arantxa – Orotar hamarreko bat.
 Ttantta – Lehen mantxa haurrentzat.

Arrantxak errege, bi zaldi eta asto.
 Ttanttak bi xango, zazpia eta bosta.



407. Kantua - Iragan besta biharamunian (Elizanburu)

Iragan besta biharamunean, berek dakiten xoko batean,
 Lau andre, bat alarguna, hiru mutxurdin, jarriak itzalean,
 Harri xabal bat belaunen gainean, ari dira ari dira trukean.

408. Hiztegia - Musean

-400-401- Ezpata: *épée*. Kopa: *coupe*. Arrosa: *rose*. Errege: *roi*. Zaldi: *cheval*. Gopor: *bol*. Pare: *paire*. Joko: *jeu*. Medeak: *brelan*. Pundu: *point*. Eta abar: *etc...* Esku: *main*.

-404-405- Partida: *partie*. Esplikatu: *expliquer*. Inbido: *pari*. Hordago: *va-tout*. Mantxa: *manche*. Tiratu: *tirer*. Iduki: *à voir*. Ttantto: *point*. Hamarreko: *dizaine en fait 5 points*.

-406- Besta: *fête*. Xoko: *coin*. Mutxurdin: *vieille fille*. Alargun: *veuf, veuve*. Truke: *jeu de troc*. Aurkibide: *table de matières*.

Aurkibidea

Aitzin solas.	3
31. Herritarrak	6
– Lapurtarrak	(Ni nintzen, nuen, nintuen)
Baxenabartarrak eta	
Zuberotarrak	(Pattin zena)
– “Berteretxen kantoria”	(erlatiboa)
32. Jatetxean	10
Zer janen dugu?	(Ona zaio)
Bazkaltzen	(etorri nazaio)
“Godalet dantza”	(nor nori aditza)
33. Oilasko saltsa	14
Sukaldaritza	(Maite zaitut)
Sutondoa	(Maite nauzu)
“kinkiri kunkuru”	(Nor nork aditza)
34. Gauzak non?	18
Moltsa galdu	(Zugan, -gandik, -gana)
Moltsa aurkitu	(Eman dizut, hartu didazu)
“O Pello, Pello”	(Nor nori nork aditza)
35. Herriko Etxean	22
Kontseilua	(Bizitegi, berogailu)
Bilkura	(Baldin bada, baldin badu)
“Sor lekua”	(Egiazko baldintza)
36. Etxean	26
Etxe ikuska	(Lana balu)
Bizitegia	(uros litzateke)
“Goizean”	(Alegiazko baldintza)

37. Jantzi denda 30

Oinetako gozoak	<i>(Eginaraz, eragin)</i>
Soineko ederrak	<i>(Eman dizugu, hartu diguzu)</i>
“Iruñeko feriak”	<i>(nor nori nork 1, 2)</i>

38. Gutunak 34

Ttanttari	<i>(Erran diot, erantzun dit)</i>
Lan bilan	<i>(Eman dizkiot, hartu dizkit)</i>
“Auzoan zer berri?”	<i>(nor nori nork 1, 2, 3)</i>

39. Zer eguna! 38

Asurantz bulegoan	<i>(Etorri delarik)</i>
Gezurra etxean	<i>(Ikusi duenean)</i>
“Nongo zira, zu”	<i>(Denborazkoak)</i>

40. Musean 42

Musean ikasten	<i>(Handi, ttipi, pare, joko)</i>
Mus. Ez da musik	<i>(Inbido, hordago, kanta)</i>
“Ari ziren trukean”	<i>(5 ttantto hamarreko)</i>

Aurkibidea 46